

BIDAIETAZ

antzezlan



UNITATE DIDAKTIKOA

BIDAIETAZ – HELBURU ARTISTIKOA



Beheko Larraine konpainiarentzat antzerkia tresna ikaragarria da egungo errealitatea ulertzeko eta sentsibilizazio eta hausnarketa abiatzeko. Hori dela eta, *Bidaietaz* antzezlanaren bidez gaur egun hain gertu bizi dugun migrazioaren gaia haurrengana gerturatzeko ahalegina egin dugu. Migrazio mota ezberdinen bitartez naturala den dinamika hau haurrei bistaratzeko.

Haurrak gizarte honen parte oso garrantzitsua dela argi dugu, eta antzerkiak eta arteak orokorrean zentzumen eta bizipenen bidez adierazteko duen gaitasunari esker gaia haurrengana gerturatu, eta elkarrizketa sustatzea da gure helburua. Euren artean galderak, hausnarketak eta gogoetak partekatu ahal izateko tokia eskaintzea.

Nahiz eta gai orokorra migrazioa izan, bere inguruan beste hainbat jorratzen dira, pertsonaiak eta egoerak kontuan hartuta. Hauek guztiak bilduko dituen unitate didaktiko bat sortu dugu, ordu beteko lau saiotan banatua.

Bertan proposaturikoa helduleku bat izatea nahi dugu, gidari bakoitzak bere beharren arabera libreki moldatu ahalko duena.

Espero dugu guk bertan bizitako esperientzia bezain ederra izatea ikusi ostekoa.

BIDAIETAZ - ARIKETAK

1. SAIOA

Helburua: antzezlanean gertatutakoak gogora ekartzea, pertsonaiak eta haien bidaiak berriz ere mintzagai izatea, antzezlaneko gaia zein den definitzea.

1.1. SOLASALDIA: Galdera sorta orokorra antzezlanari buruz

Irakasleentzat oharra: jarraian dituzuen galdera hauek gida bat dira, izan daitezke hauek edo antzeko beste batzuk, gehitu diezazkiozue galderen zerrendari galdera berriak... Garrantzitsuena hurrek berriz ere antzezlanaren gogoan hartzea da, eta bertan hitz egindako gaiak berriz ere beren imajinarioetan kokatzea. Hartara, saio ezberdinetarako ariketak egiteko antzezlanaren inguruko imajinarioa osatzen joango gara.

GALDERAK

- Sunna agertu denean, zer da lehenengo gauza pentsatu duzuen?
- Antzerkia zelan ikusi zenuten hasieratik? Bestela, noiz konturatu zineten antzerkia zela?
- Zer iruditu zaizue ezezagun bat eskolara sartzea? (Adibidez: haserretu zarete, beldurtu zarete...?)
- Nola erantzun du taldeak?
- Zer dute komunean hiru pertsonaiek?
- Zuen ustez, zein da antzezlanaren gaia?
- Zer da migratzaile izatea?

1.2. ARIKETA PRAKTIKOA

OHARRA IRAKASLEENTZAT: jarraian dituzuen proposamenak bi taldetan banatu ditugu, txikientzat eta handientzat. Antzezlanak egin dugun ikastetxeetan berehala jabetu gara adin ezberdinekin funtzionatzen duela oso ondo, baina era berean, modu ezberdinetan jasotzen dutela, eta egokitu behar izaten dugula antzezlaneko energia bera. Hori dela eta, ariketa honetan ere ezberdintzea erabaki dugu.

1.2.1. Ariketa proposamena txikientzat

Talde txikitan banatu gela. Taldeetan egin mural bana, marrazki bidez “Sunnaren bidaia antzezlanean” azaltzen duena (antzezlanean gertatutako guztia).

Ondoren, aurkeztu murala beste taldeei.

Aurkezpenaren ondoren formulatu denon artean erantzuteko galderak, irakaslearen laguntzaz. Adibidez:

GALDERAK

- Iruditzen zaizue Sunnak arazo bat daukala? Zein?
- Iruditzen zaizue arazoarentzat konponbide bat dagoela antzezlanean? Zein?

1.2.2. Ariketa proposamena handientzat

Idatzi bi zerrenda talde txikitan galdera hauei erantzunez:

- Iruditzen zaizu Sunnak arazo bat daukala? Zein?
- Iruditzen zaizue arazoarentzat konponbide bat dagoela antzezlanean? Zein?

Nahi adina hitz solte sartu zerrendatan.

Bi zerrendak idatzi mural batean, eta ondoren denon artean komentatu.

2. SAIOA

2.1. EMOZIOEN MURALA

Hurrei oinarrizko emozioak zeintzuk diren gogora ekarri: tristura, poza, beldurra, nazka, haserrea, sorpresa.

Jarri horman edo arbelean edo paper handi batean, espazio propio bat utziz emozio bakoitzari.





(* Nahi izanez gero, erabili hurrengo orrialdean doan eskema. Hori bera inprimatu daiteke taldeka, edo paper handi bakar bat egin denontzat.

Atxikirik duzuen pertsonaien argazkiak inprimatu, eta talde bakoitzari banatu. (Bakoitzak pertsonaia bakoitzaren sei argazkitxo lituzke, 6x3 kromo).

Hurrek egin beharrekoa: banatu taldeetan, eta lotu taldeka emozio bakoitza pertsonaia batekin edo gehiagorekin.

Ikusi zer pertsonaia gailentzen den emozio bakoitzean, eta komentatu zergatik izan daitekeen hori.

(* Adibidez: beldurrean Madame pertsonaia gailendu baldin bada, zergatik izan daiteke? Zergatik eman zien beldurra?



2.2. PERTSONAIEN ARRASTOAZ

Ariketa honen bitartez pertsonaia bakoitzak utzitako arrastoaz gogoeta egin nahi dugu. Emanaldietan ikusi ahal izan dugunez, pertsonaia bakoitzak kontraesan eta zalantza ezberdinak sortzen dizkie hurrei. Gora ekar dezagun bakoitzaren “bidaia”:

-SUNNA: gerla baten ondorioz, gogoz kontra bidaia luzea egitea derrigortua dagoen pertsonaia. Gatazka baten ondorioz da migratzaile. Besteen ulermena, elkartasuna, eta harrera egiteko gaitasuna behar ditu.

-MADAME PIMPINELA: genero gatazka izan daiteke berea, bere buruaren onarpena gizarteak “arrarotzat” duen horren aurrean. Transexualitatea, queertasuna. Gorputzetik gorputzera egindako migrazioa da berea. Ezberdintasuna normalizat hartzea behar du.

-TXIA: plazerari loturiko migrazioa da berea, antzerkiaren bidez egiten duena. Kasu honetan, antzerkia enpatiarako tresna bat da, munduko edozein pertsonaren azalean sartzeko aukera ematen duelako.

Lehenik eta behin, pertsonaia bakoitzari loturiko galderak egin hurrei. Adibideak (lehenengo ariketan bezala, galdera hauek erabili daitezke, edo beste batzuk):

SUNNA



GALDERAK

- Bitxia iruditu zaizu pertsonaia? Zerk deitu dizu gehien atenzioa?
- Zein herrialdekoa dela uste duzue?
- Hurbiltzeko gogoia eman dizue ala ez?
- Berari laguntzeko gogoia izan duzue?
- Zer esan zion Sunnari bere aitonak?
- Zer atera zuen Sunnak zorrotik, zergatik zen hain garrantzitsua berarentzat?
- Gustatuko litzaizueke Sunna bezalako migratzailea zuen herrian geratzea bizitzen?
Zergatik?
- Eta laguntza beharko balu, zabalduko zenioke zuen etxeko atea?
- Sunnak gogorarazten dizue ezagutu duzuen norbait?

MADAME PIMPINELA



GALDERAK

- Zerk piztu dizue arreta gehien pertsonaia honetatik?
- Madame Pimpinela bitxia iruditzen zaizu? Zergatik?
- Zein bidaia egin du Madame Pimpinelak?
- Komunera lagundu beharko bazenu, zein komunera eramango zenuke, neskena edo mutilena?
- Zure ustez Madame Pimpinela zoriontsua da? Zergatik?
- Noizbait esan dizuete zuei bitxia zaretela?
- Bada arroparen bat gustura jantziko zenukeena kaletik, baina lotsa ematen dizuna? Zergatik?
- Ezagutzen duzu Madame Pimpinela bezalako pertsonarik?

TXIA



GALDERAK

- Zerk piztu dizu arreta gehien berataz?
- Zer da Txiaari gehien gustatzen zaiona?
- Gustatu zaizkizu maletatik ateratako pertsonaiak?
- Bitxiak iruditu zaizkizu? Zergatik?
- Maletan zeraman munduko jendetik, zein gustatu zaio gehien?
- Zertan laguntzen dio Txiaari antzerkiak obra honetan?
- Txia badu etxerik? Zein uste duzu dela Txiaaren etxea?

AMAITZEKO

Pertsonaia bakoitzaren inguruko solasa egin eta gero, galdera hauek planteatuko genituzke:

GALDERAK

- Hiruetatik nor eramango zenuke etxera eta zergatik?
- Aukeratu haietako bat eta MARRAZTU bere etorkizuna.

3. SAIOA

3.1. ETXEKOLANA

Ariketa hau haur bakoitzaren etxean hasiko da. Etxean galdetu behar dute ea familian, inguruan, lagunartean... ba ote den migratzailerik, edozein eratako migrazioa (leku aldatze bat, ezustekoa, nahita egindakoa... izan daiteke etxe aldaketa bat ere). Informazioa ekarri, ahal dela migrazioa egin duen pertsona (senide, lagun...) horren argazkiren batekin.

Gelan komentatu ekarritakoa.

3.2. ETXEKOLANA

Bidaia luze bat hasi beharko bazenu, ezustean eta presaka, noiz bueltatuko zaren jakin gabe, zer eramango zenuke zurekin?

Etxean prestatu zorro bat eta sartu bertan BOST gauza, bertan kabitzen direnak soilik. Gauzarik maitagarrienak edo beharrezkoenak.

Ekarri guztia gelara, baina EZ ERAKUTSI BESTEEI.

3.3. GELAN LANTZEKO

Talde handian edo talde txikian egin daiteke ariketa hau.

Bakoitzak hartu gogoan zorroan sartuta ekarri duen objektuetako bat, besteei erakutsi edo esan gabe.

Txandaka MIMIKAREN BIDEZ saiatu azaltzen zein den, besteek asmatzeko.

Amaieran jarri bakoitzaren mahai gainean bakoitzaren objektuak, eta joan denok mahaietatik MUSEO BAT BAILITZAN, besteei txandaka azalduz zergatik aukeratu dituen horiek.

OHARRA: Bai zorroa bai objektuak laugarren saioan erabiliko dira.

4. SAIOA

Ariketa honen helburua aurreko ariketetan landutako ideiekin ANTZERKI BAT egitea proposatzen dugu, zeinean funtsean, migrazio bat antzeztuko duten. Abiapuntu bezala bi elementu hauek erabiliko ditugu:

- Argazkiak: ondoren doazenak izan daitezke, edo helduen kasuan, beraiek gaiari loturik interneten bilatutakoak.
- Etxetik ekarritako zorroa. Antzerkia egin bitartean bakoitzak berea eramango du soinean.

Atxikirik doazen irudiak erabili ezker:

Taldeetan jarri eta talde bakoitzak aukeratu irudi bat. Irudi horretan oinarrituta taldetxo bakoitzak antzerkitxo bat egingo du. Antzerkiaren bidez irudikatu beharko dute:

- Migrazioa hasteko arrazoia (gosea, gerra...)
- Bidaia nola egin duen (itsasontzia, hegazkina, patera, oinez...)
- Iritsi den tokira egin dioten harrera mota bat (goxoa, zakarra...)

Argazkiak internetetik aukeratu ezker:

Internetetik hartu migrazio mota ezberdinak islatzen dituzten argazkiak. Egin mural bat argazki horiekin. Ondoren, talde bakoitzak aukeratu argazki bat, eta irudi horretan oinarrituta taldetxo bakoitzak antzerkitxo bat egingo du. Antzerkiaren bidez irudikatu beharko dute:


- Migrazioa hasteko arrazoia (gosea, gerra...)
- Bidaia nola egin duen (itsasontzia, hegazkina, patera, oinez...)
- Iritsi den tokira egin dioten harrera mota bat (goxoa, zakarra...)

Amaitzeko:

Ondorioak ateratzeko galdera:

- Zer ikasi duzue antzerkiarekin, zer eraman duzue etxera?

Irudiak (Inspirazioa iturria: *Emigrantes* komikia, Shaun Taun)





BEHEKO LARRAINE KONPAINIARI BURUZ

“beheko larraine erabiliko zuten eta duten guztiei ahotsa eman nahian...”

Beheko Larraine euskal antzerkia eta sorkuntza xede duen konpainia da. 2016an sortu zen, Nafarroan, Lekunberrin hain zuzen ere. Ibilbide motz honetan hainbat antzokietan ikusi ahal izan ditugun bi antzezlan plazaratu ditu:

-2015ean ZuBi sariarekin eta Kultur Sormena laguntzarekin egindako *Atte hil aurretik*.

-2018an sortutako *Manifestu bat*, gaur egun oraindik ere herriz herri jarraitzen duena.

Bidaietaz konpainiaren hirugarren proiektua da. Lehen hezkuntzako umeak arte eszenikoetara gerturatzea helburu nagusi duen egitasmoak Euskal Hirigune Elkargoaren babesaren bidez, eta baita Axut! kolektiboaren ere.

Migrazioa bizi baldintzak hobetzeko ematen den mugimendua da. Bortxazkoa, borondatezkoa, banakakoa edo taldekkoa izan daiteke, besteak beste. Migrazioa aukera bezala hartzeko ematen diren egoera desberdinen aurrean, pentsamendu autonomoa, kritikoa eta enpatia landuz umeek sortzaile izateko tartea ere izango dute *Bidaietaz* antzezlan ibiltarian.

Beheko Larrainen lan talde berri bat osatu du *Bidaietaz* taularatzeko: Iraia Elias (Ttak Teatro), Oier Guillan (Metrokoadroka kolektiboa) arituko dira Beheko Larraineko sortzailea den Miren Tirapurekin batera.

Harremanetarako:

Miren Tirapu Goikoetxea

Tlf: (+34) 677638749

info@behekolarraine.eus

www.behekolarraine.eus



BEHEKO LARRAINE

